XEDAPEN GEHIGARRIA

***Bakarra.***– Sailburuordetzetako eta zuzendaritzetako titularrak kanpoan edo gaixorik badaude edo lanpostu horiek betetzeke badaude, hierarkian gainetik hurbilen daudenek beteko dituzte horiei dagozkien egitekoak eta funtzioak, egoerak dirauen artean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen hauek indargabetu dira: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezarri zuen abenduaren 12ko 510/1995 Dekretua eta berori aldatzeko eman ziren beste hauek: otsailaren 11ko 25/1997 Dekretua, abenduaren 16ko 299/1997 Dekretua, maiatzaren 26ko 92/1998 Dekretua, martxoaren 30eko 174/1999 Dekretua eta Dekretu honen edukiaren aurka dagoen maila bereko edo beheragoko edozein xedapen.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehena.***– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak izango du dekretu hau garatzeko eman behar diren xedapenak emateko eskumena.

***Bigarrena.***– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko urriaren 16an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
M.ª ÁNGELES IZTUETA AZKUE.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

***Única.***– En los casos de vacante, ausencia o enfermedad de los titulares de las Viceconsejerías y Direcciones del Departamento, las funciones y competencias atribuidas a los mismos serán ejercidas, mientras dure tal situación, por el superior jerárquico inmediato.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados: el Decreto 510/1995, de 12 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, los Decretos de modificación del anterior que a continuación se relacionan: el Decreto 25/1997, de 11 de febrero, el Decreto 299/1997, de 16 de diciembre, el Decreto 92/1998, de 26 de mayo y el Decreto 174/1999, de 30 de marzo, así como cualquiera otra disposición de igual o inferior rango que se oponga al contenido del presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Se faculta a la Consejera del Departamento de Educación, Universidades e Investigación para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

***Segunda.***– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de octubre de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
M.ª ÁNGELES IZTUETA AZKUE.

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### Zk-5844

223/2001 DEKRETUA, urriaren 16koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

2001–2004 legegintzaldi honetarako, Jaurlaritzaren programaren arabera, garapen iraungarriko ekonomia eredu berri bat aurrera eramateari eman behar zaio lehentasuna; horri esker aurrera egin ahal izango baita

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### N°-5844

DECRETO 223/2001, de 16 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

El programa de Gobierno para la presente legislatura 2001-2004 incluye en la formulación de sus grandes líneas inspiradoras el desarrollo de un nuevo modelo económico de crecimiento sostenible que nos permita

hainbat gaitan, hala nola, lehiakortasunean, produktibitatean, elkartasunean eta lurralde arteko orekan.

Lehendakariaren uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuaren bidez Administrazioko sailak eta haietako bakoitzaren eskumenak berrantolatu dira, Jaurlaritzaren programa horretatik datozen betebeharrak albait ondoen betetzearren.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari beste aginpide bat esleitu zaio, hain zuzen ere, euskal gizartean informazioaren eta jakintzaren gizartea sustatzea eta aurrera eramatea. Oinarrizko jarduera da hori, industriaren, merkataritzaren eta turismoaren sektoreak antolatze eta sustatze aldera.

Ildo horretatik, lehiakortasunaren erronkari aurre egiteko beharrezkoa da antolakuntza berria eratzea, berrikuntzaren, jakintzaren, kalitatearen eta lankidetzaren irizpideak kontuan hartuta.

Ondorioz, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren proposamenez, Lehendakariak onartu eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko urriaren 16an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA.– ANTOLAMENDU OROKORRA

*1. artikulua.–* Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren ardurapeko eginkizunak dekretu honetan ezarritakoarekin bat beteko ditu, eta eginkizun horiek zehazten dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun–arloak finkatzen dituen uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuaren 10. artikuluan.

*2. artikulua.–* Organoak.

Aurreko artikuluan zehazturiko gaiei dagozkien eginkizunak betetzearren, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak honako egitura hau hartzen du:

a) Organo nagusiak:

1.– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua.

1.1.– Sailburuaren Kabinetearen Zuzendaritza.

2.– Administrazio eta Plangintza Sailburuordetza.

2.1.– Industria eta Meategiak Administratzeko Zuzendaritza.

2.2.– Energia Zuzendaritza.

seguir avanzando en términos de competitividad, productividad, solidaridad y equilibrio territorial.

El Decreto 7/2001, de 16 de julio, del Lehendakari, procede a reordenar la estructura departamental de la Administración y la asignación competencial entre Departamentos para llevar a cabo con la máxima eficacia el conjunto de compromisos programáticos que constituyen el citado Programa de Gobierno.

Al Departamento de Industria, Comercio y Turismo se le asigna, como nueva competencia, la promoción y desarrollo de la Sociedad de la Información y del Conocimiento en la sociedad vasca constituyéndose, además, esta actuación en un elemento básico para el desarrollo económico junto a la promoción y ordenación de los sectores industrial, comercial y turístico.

Con dicha orientación se hace necesario perfilar una nueva estructura organizativa que posibilite una gestión eficaz del reto de la competitividad, cuyos motores radican en profundizar en la innovación, el conocimiento, la calidad y la cooperación.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 16 de octubre de 2001,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
ORGANIZACIÓN GENERAL

*Artículo 1.–* El Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

El Departamento de Industria, Comercio y Turismo ejercerá las funciones en las materias cuya competencia le atribuye el artículo 10 del Decreto 7/2001, de 16 de julio, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, de conformidad con lo previsto en el presente Decreto.

*Artículo 2.–* Órganos.

Para el ejercicio de las funciones relativas a las materias señaladas en el artículo anterior, el Departamento de Industria, Comercio y Turismo se estructura en los siguientes órganos:

a) Órganos centrales:

1.– El Consejero de Industria, Comercio y Turismo.

1.1.– Dirección de Gabinete del Consejero.

2.– Viceconsejería de Administración y Planificación.

2.1.– Dirección de Administración de Industria y Minas.

2.2.– Dirección de Energía.

2.3.– Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

3.– Industria Berritzeko eta Garatzeko Sailburuordetza.

3.1.– Teknologiaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritza.

3.2.– Kudeaketa Hobetzeko eta Berritzeko Zuzendaritza.

3.3.– Nazioartekotze Zuzendaritza.

3.4.– Industria Sustatzeko Zuzendaritza.

3.5.– Industria Antolatzeko Zuzendaritza.

4.– Merkataritza eta Kontsumo Sailburuordetza.

4.1.– Merkataritza Zuzendaritza.

4.2.– Kontsumo Zuzendaritza.

5.– Turismo Sailburuordetza.

5.1.– Turismoa Sustatzeko Zuzendaritza.

5.2.– Turismoa Antolatzeko Zuzendaritza.

b) Lurralde organoak:

1.– Lurralde historiko bakoitzeko Industria, Merkataritza eta Turismoko lurralde bulegoak.

c) Kide anitzeko organoak:

1.– Euskadiko Prezioen Batzordea.

2.– Iruzurrezko Publizitatearen Batzordea.

3.– Kontsumoko Aholku Batzordea.

4.– Turismoko Aholku Batzordea.

5.– Merkataritzako Aholku Batzordea.

6.– Euskadiko Nazioartekotze Batzordea.

7.– Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumoko Arbitraje Batzordea.

d) Ondoren zerrendatzen diren erakunde administrazioko entitateak Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikitzen zaizkio:

1.– Energiaren Euskal Erakundea (EEE/EVE) zuzenbide pribatuko erakunde publikoa.

2.– Industriaren Sustapen eta Eraldaketerako Baltzua (ISEB/SPRI) baltzu publikoa.

*3. artikulua.*– Zuzendaritza Kontseilua.

Saileko Zuzendaritza Kontseiluak laguntza emango dio sailburuari saileko politikaren goi ikuskapena eta jarraipena egiten, bere jardueren plangintza orokorra prestatzen eta agindutako beste gai guztietan.

Sailburuaren goi zuzendaritzaren pean, saileko sailburuordeek eta sailburuaren kabinetearen zuzendariak osatuko dute Zuzendaritza Kontseilua.

2.3.– Dirección de Servicios Generales.

3.– Viceconsejería de Innovación y Desarrollo Industrial.

3.1.– Dirección de Tecnología y Sociedad de la Información.

3.2.– Dirección de Calidad e Innovación en la Gestión,

3.3.– Dirección de Internacionalización.

3.4.– Dirección de Promoción Industrial.

3.5.– Dirección de Ordenación Industrial.

4.– Viceconsejería de Comercio y Consumo.

4.1.– Dirección de Comercio.

4.2.– Dirección de Consumo.

5.– Viceconsejería de Turismo.

5.1.– Dirección de Promoción Turística.

5.2.– Dirección de Ordenación Turística.

b) Organos Periféricos:

1.– Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo de cada uno de los Territorios Históricos.

c) Organos Colegiados:

1.– Comisión de Precios de Euskadi.

2.– Comisión de Publicidad Engañosa.

3.– Comisión Consultiva de Consumo.

4.– Consejo Consultivo de Turismo.

5.– Comisión Consultiva de Comercio.

6.– Comisión de Internacionalización del País Vasco.

7.– Junta Arbitral de Consumo de Euskadi.

d) Quedan adscritos al Departamento de Industria, Comercio y Turismo las entidades de la Administración Institucional que a continuación se relacionan:

1.– El Ente Público de Derecho Privado «Energiaren Euskal Erakundea / Ente Vasco de la Energía» (EEE / EVE).

2.– La Sociedad Pública «Industriaren Suztapen eta Eraldaketerako Baltzua / Sociedad de Promoción y Reconversión Industrial» (ISEB / SPRI).

***Artículo 3.***– El Consejo de Dirección.

El Consejo de Dirección del Departamento asistirá a su titular en la supervisión y seguimiento de la política del Departamento, en la planificación general de sus actividades y en cuantos asuntos le sean encomendados.

Bajo la superior dirección del titular del Departamento, el Consejo de Dirección estará integrado por lo/as Viceconsejero/as del Departamento y el/a Director/a de Gabinete del Consejero.

Era berean, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak beste kide batzuk ere izenda ditzake Zuzendaritza Kontseiluan aritzeko.

Sailburuak izendatzen duenak egingo du Zuzendaritza Kontseiluko idazkari lana.

II. KAPITULUA
SAILBURUA

*4. artikulua.*– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua.

1.– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari hauxe dagokio: Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 26 eta 28. artikuluetan finkaturiko eskumenak betetzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun arloak finkatzen dituen uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuaren indarrez sailari dagozkion egiteko eta jardun arloetan, indarrean dauden legeek ematen dizkioten eskumenak betetzea, betiere dekretu honetan onartutakoarekin bat etorriz.

2.– Saileko organo gorena denez, saileko organo guztien eta bertako jarduera guztien zuzendaritza, koordinazioa eta kontrola berak egingo ditu.

3.– Sailburuari dagokio, halaber, informazioaren eta jakintzaren gizartea sustatzeko eta aurrera ateratzeko goi zuzendaritza, lehendakariaren uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuan jasotakoaren arabera.

4.– Sailburuak zigortzeko ahalmena erabiliko du merkataritza arloan, Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko 43. artikuluan ezarritako eran.

5.– Sailburuari dagokio, orobat, aukerako izendapeneko lanpostuak betetzea, deialdi publikoa egin eta gero; berak izendatuko ditu, era berean, aldi baterako langileak.

6.– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren menpe dago, zuzenean eta hierarkikoki, Sailburuaren Kabinetearen Zuzendaritza.

*5. artikulua.*– Sailburuaren Kabinetearen Zuzendaritza.

Sailburuaren Kabinetearen Zuzendaritzak, 7. artikuluan ezarritako eginkizun orokorrez gain, honako eginkizunak izango ditu:

a) Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari esleitutako eskumenak betetzeko lanetan sailburuari laguntzea.

Asimismo podrán participar en el Consejo de Dirección otras personas que determine, en todo caso, el Consejero de Industria, Comercio y Turismo.

Actuará como Secretario/a del Consejo quien a tal efecto sea designado por el Consejero del Departamento.

CAPÍTULO II
DEL CONSEJERO

*Artículo 4.*– El Consejero de Industria, Comercio y Turismo.

1.– Corresponde al Consejero de Industria, Comercio y Turismo el ejercicio de las competencias establecidas en los artículos 26 y 28 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno y cuantas le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de actuación que corresponden al Departamento en virtud del Decreto 7/2001, de 16 de julio, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, de conformidad con lo previsto en el presente Decreto.

2.– Como órgano superior del Departamento ejercerá la dirección, coordinación y control de todos los órganos y actividades del mismo.

3.– Corresponde, igualmente, al Consejero la alta dirección del desarrollo y promoción de la Sociedad de la Información y del Conocimiento en los términos previstos en el Decreto 7/2001, de 16 de julio, del Lehendakari.

4.– El Consejero ejercitará la potestad sancionadora en materia de Comercio en los términos previstos en el art. 43 de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de Actividad Comercial.

5.– Corresponde asimismo al Consejero la provisión de los puestos de libre designación, previa convocatoria pública; así como la designación del personal eventual.

6.– Del Consejero de Industria, Comercio y Turismo depende directa y jerárquicamente la Dirección del Gabinete del Consejero.

*Artículo 5.*– Dirección del Gabinete del Consejero.

La Dirección del Gabinete del Consejero realizará, además de las que con carácter general se establecen en el artículo 7, las siguientes funciones:

a) Asistencia al Consejero en el ejercicio de las competencias atribuidas al Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

b) Barneko kudeaketa planak eta haien segimendu txostenak prestatzeko koordinazio lanak egitea.

c) Sailaren eskumeneko gaietan jarduteko irizpideak proposatzea sailburuari.

d) Sailaren eta Eusko Legebiltzarraren edota bestelako erakundeen arteko harremanak bideratzea. Betiere, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzak dituen eskumenak errespetatu behar dira.

e) Sailaren organoen eta Europar Batasuneko erakundeen arteko harremanak bideratzea eta koordinatzea. Betiere, Jaurlaritzaren Lehendakaritzak dituen eskumenak errespetatu behar dira.

f) Sailaren eta gizarteko komunikabideen arteko harremanak izatea.

g) Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren ekintza publiko eta ofizialak antolatzea.

III. KAPITULUA
SAILEKO SAILBURUORDETZAK ETA ZUZENDARITZAK.

*6. artikulua.–* Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko sailburuordeak.

Sailburuordetza bakoitzean sailburuorde bana egongo da, sail horretako sailburuaren menpe. Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko sailburuordeen egitekoak dira:

a) Sailburuordetzaren jarduerak nahiz zuzendaritzenak eta sailburuordetzaren menpeko gainerako administrazio organo eta unitateenak zuzendu, koordinatu, bultzatu eta ikuskatzea.

b) Jardun politikak prestatu eta sailburuari proposatzea.

c) Zirkularrak, jarraibideak eta xedapenak ematea sailburuordetzaren menpeko zerbitzuei, behar bezala jardun dezaten.

d) Sailburuari laguntza teknikoa eskaintzea, dagozkion ardurapeko gaietan.

e) Jardun politikaren araberako xedapen proiektuak proposatzea.

f) Sailburuordetzaren jarduerak programatzea.

g) Sailburuari aldiro ematea bere ardurapeko zerbitzuen berri (bilakaera, kostua eta atarramentua). Hala ere, kontuan izango dira Ogasun eta Herri Administrazio Sailak gai horietan dituen ahalmenak.

h) Sailburuordetzaren menpeko zuzendaritza zentroen eta erakundeen jarduteko modua ikuskatu eta kontrolatzea.

b) Coordinación de la elaboración de los planes de gestión internos y de los informes de seguimiento de los mismos.

c) Propuesta al Consejero de los criterios de actuación en relación con las materias de competencia del Departamento.

d) Canalización de las relaciones del Departamento con el Parlamento Vasco y con otras instituciones, sin perjuicio de las competencias que ostenta la Vicepresidencia de Gobierno.

e) Coordinación y canalización de las relaciones de los órganos del Departamento con las Instituciones de la Unión Europea, sin perjuicio de las competencias que corresponden a Presidencia de Gobierno.

f) Relaciones del Departamento con los medios de comunicación social.

g) Organización de los actos públicos y oficiales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

CAPÍTULO III
DE LAS VICECONSEJERÍAS Y DIRECCIONES DEL DEPARTAMENTO

*Artículo 6.–* Lo/as Viceconsejero/as del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

Al frente de cada una de las Viceconsejerías habrá un Viceconsejero/a bajo la dependencia del Consejero del Departamento. Corresponde a lo/as Viceconsejero/as del Departamento de Industria, Comercio y Turismo:

a) Dirigir, coordinar, impulsar y supervisar las actuaciones de la Viceconsejería, así como de las Direcciones y demás órganos y unidades administrativas dependientes de la misma.

b) Elaborar y proponer al Consejero políticas de actuación.

c) Dictar las circulares, instrucciones y disposiciones necesarias dirigidas a los servicios dependientes de la Viceconsejería, en orden a su correcto funcionamiento.

d) Prestar asistencia técnica al Consejero en el ámbito de las funciones que tengan encomendadas.

e) Efectuar la propuesta de proyectos de disposiciones de conformidad con la política de actuación establecida.

f) Llevar a cabo la programación de las actividades de la Viceconsejería.

g) Dar cuenta periódicamente al titular del Departamento de la evolución, coste y rendimiento de los servicios que tengan encomendados, sin perjuicio de las facultades que en esta materia corresponden al Departamento de Hacienda y Administración Pública.

h) Supervisar y controlar el funcionamiento de los centros directivos y organismos dependientes de la Viceconsejería.

i) Hitzarmenak izenpetzea, enpresa, erakunde eta korporazioekin, kasuan kasuko eskumena beste organo bati esleitu ez bazaio.

j) Jardun planen kudeaketa eta helburuak ikuskatzea.

k) Sailaren eskumeneko arloetan eta sailaren izenean, bera izango da beste sailekin izango dituen harremanetako organoa. Bera izango da, halaber, gai horren inguruan sorturiko sail arteko koordinazioko organoekin arituko dena.

l) Sailburuordetzako zuzendariek eta lurralde organoek hartutako erabakien aurka jarritako errekurtsoen berri izan eta ebaztea, sailburuordea hierarkiaz gorago baldin badago.

m) Indarrean dagoen araubide juridikoak agintzen dien beste edozein eginkizun, edo, orokorrean, Jaurlaritzako sailburuordeei atxikitzen zaizkienak.

n) Sailburuordearen arloko zigor ahalmena erabiltzea eta oso larritzat jotako zigorrak ezartzea, betiere, indarreko legediaren arabera. Salbuespen moduan, ez du sailburuari, eta, hala dagokionean, Jaurlaritzaren Kontseiluari dagokion merkataritza arloko zigor ahalmena erabiliko, maiatzaren 27ko 7/1994 Legeko 43. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

7. ***artikulua.***– Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko zuzendaritzak.

Saileko zuzendaritza bakoitzean zuzendari bana egongo da, hierarkikoki sail horretako sailburuordearen menpe. Oro har, hauek dira zuzendariaren egitekoak:

a) Zuzendaritzako barne zerbitzuak eta lan sistemak antolatzea, organo eskudunek ezarritako arauekin bat.

b) Zuzendaritzaren jarduerak programatu, bultzatu, zuzendu, koordinatu eta kontrolatzea, dagokion sailburuordeak emandako jarraibideak aintzat hartuz.

c) Euren gainetik dauden organoei planak edo jardun programak proposatzea, aginpidea duten gaietan.

d) Dekretu honen bidez esleitzen zaizkien eginkizunak betetzeko administrazio egintzak ematea.

e) Indarrean dagoen araubide juridikoak agintzen dien beste edozein eginkizun, edo, orokorrean, Jaurlaritzako zuzendariei atxikitzen zaizkienak.

f) Dagokien arloko zigor ahalmena erabiltzea; eta, indarrean dagoen legediari jarraituz, arintzat nahiz larritzat jotzen diren zigorrak ezartzea.

i) Firmar acuerdos o convenios con empresas, entidades y corporaciones cuando en el ejercicio de sus respectivas competencias la misma no sea atribuida a otro órgano.

j) Supervisar la gestión de los planes de actuación y objetivos.

k) Ser el órgano de relación del Departamento, en las áreas de su competencia, con el resto de los Departamentos; así como con los órganos de coordinación interdepartamental constituidas en relación a dicho ámbito material.

l) Conocer y resolver los recursos interpuestos contra las resoluciones adoptadas por lo/as Directore/as de las Viceconsejerías y por los órganos periféricos en el supuesto de que el/a Viceconsejero/a tenga el carácter de superior jerárquico.

m) Cualesquiera otras funciones que les atribuya el ordenamiento jurídico vigente o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a lo/as Viceconsejero/as del Gobierno.

n) Ejercicio de la potestad sancionadora en el ámbito de su competencia con la imposición de sanciones tipificadas como muy graves de acuerdo con la legislación vigente, salvo la competencia que corresponde al Consejero en materia de Comercio para este tipo de sanciones, o, en su caso, al Consejo de Gobierno, conforme a lo previsto en el artículo 43 de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial.

***Artículo*** 7.– Las Direcciones del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

Al frente de cada una de las Direcciones del Departamento habrá un/a Director/a que dependerá jerárquicamente del/a Viceconsejero/a correspondiente. Con carácter general son sus funciones:

a) Organizar los servicios internos y sistemas de trabajo de la Dirección, de acuerdo con las normas establecidas por los órganos competentes.

b) Programar, impulsar, dirigir, coordinar y controlar las actividades de la Dirección, de conformidad con las instrucciones recibidas del/a Viceconsejero/a correspondiente.

c) Proponer a los órganos de los que dependan los planes o programas de actuación en las materias atribuidas a su competencia.

d) Dictar los actos administrativos para la ejecución de las funciones que se les asignan por el presente Decreto.

e) Cualesquiera otras funciones que les atribuya el ordenamiento jurídico vigente o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a lo/as Directore/as del Gobierno.

f) Ejercicio de la potestad sancionadora en el ámbito de su competencia con la imposición de sanciones tipificadas como leves y como graves de acuerdo con la legislación vigente.

I. ATALA
ADMINISTRAZIO ETA PLANGINTZA SAILBURUORDETZA.

*8. artikulua.–* Administrazio eta Plangintza Sailburuordetza.

1.– 6. artikuluan modu orokorrean finkatutako eskumenez gain, honako jardun arlo hauek zuzendu eta koordinatzea ere badagokio Administrazio eta Plangintza Sailburuordetzari:

a) Industria administrazioa.

b) Industria segurtasuna.

c) Energia.

d) Meategiak.

e) Saileko Zerbitzu Orokorrak.

2.– Industria administrazioaren arloan Industria Establezimenduen Erregistroan jaso beharreko establezimenduetako ekitaldiak sartuko dira. Era berean, industria kalitate eta segurtasuneko azpiegiturako eragile publikoen zein pribatuen baimena nahiz kontrola ere izango dira industria administrazioaren arloko zereginak. Horrez gain, arlo horren baitan sartuko dira, halaber, metrologiari, industria jabetzari, industria produktuen eta makinen segurtasuna zaintzeari, eta ibilgailuen segurtasunari lotutako jarduera guztiak.

3.– Industria segurtasunaren arlokoak izango dira arau juridiko batek araututako edo arau ditzakeen atal, mekanismo edo teknikak erabiltzen dituzten industriako instalazioak, ekipoak, jarduerak eta prozesuak. Araupetze hori instalazio edo ekipoen erabilera, funtzionamendu edo mantentze fasean gerta liteke, bai eta industria gaien ekoizpenean, erabileran, biltegiratzean edo suntsipenean ere.

4.– Energia arloan sailaren jarduera hauek bilduko dira: energia plangintzari buruzkoak, eta Euskal Autonomia Erkidegoak energiaren eremuan dituen eskumeneko jardueren (ekoizpena, bilketa, garraioa, banaketa eta merkaturatzea) administrazio kudeaketa.

5.– Meategi arloan, Sailak meatze baliabideak bilatu, ikertu eta ustiatzeko egiten dituen jarduerak sartuko dira. Orobat, meategien eta meatzarien segurtasuna ere arlo honetan sartuko da.

6.– Zerbitzu Orokorren arloan sailaren barne kudeaketari loturiko jarduerak sartuko dira.

SECCIÓN 1.ª.
DE LA VICECONSEJERÍA DE ADMINISTRACIÓN Y PLANIFICACIÓN.

*Artículo 8.–* Viceconsejería de Administración y Planificación.

1.– Corresponde a la Viceconsejería de Administración y Planificación, además de las competencias que, con carácter general, se establecen en el artículo 6, la dirección y coordinación de las siguientes áreas de actuación:

a) Administración Industrial.

b) Seguridad Industrial.

c) Energía.

d) Minas.

e) Servicios Generales del Departamento.

2.– En el área de Administración Industrial se incluirán todas aquellas actuaciones en establecimientos que deban ser objeto de inscripción en el Registro de Establecimiento Industriales y la autorización y control de los agentes públicos o privados que constituyen la infraestructura para la calidad y seguridad industrial. Así mismo, se incluirán en esta área todos aquellos actos relacionados con la Metrología, la Propiedad Industrial, el control de la seguridad de productos industriales y maquinas, así como las funciones relacionadas con la seguridad de vehículos.

3.– En el área de Seguridad Industrial se incluirán, los procesos de legalización y control de todo tipo de instalaciones, equipos, actividades y procesos industriales que utilicen o incorporen elementos, mecanismos o técnicas que estén regulados o sean susceptibles de serlo por una norma jurídica tanto en la fase de utilización, funcionamiento y mantenimiento de instalaciones o equipos, como en la de producción, uso, almacenamiento o desecho de los productos industriales.

4.– El área de Energía englobará todas las actuaciones del Departamento relativas tanto a la planificación energética como a la gestión administrativa de las actividades de producción, almacenamiento, transporte, distribución y comercialización de competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ámbito energético.

5.– En el área de Minas se incluirán todas las actuaciones del Departamento relativas a las actividades de exploración, investigación o explotación de recursos minerales, así como al control de la seguridad tanto de las explotaciones como de los trabajadores de las mismas.

6.– En el área de Servicios Generales se incluirán todas las actuaciones referidas a la gestión interna del Departamento.

7.– Estrategia eta Plangintza arloan hainbat jarduera sartzen dira, hala nola, planak, ikerketak eta politikak sortu eta beren segimendua egitea, eta, batez ere, informazioaren eta jakintzaren gizarteari loturiko jardueren plangintza proposatzea.

8.– Administrazio eta Plangintza sailburuordea Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren izenean joango da, estatuko administrazioak bultzatutako energiaren, meategien eta industria kalitatearen eta segurtasunaren organo edota batzordeetara.

9.– Administrazio eta Plangintza Sailburuordetzaren menpean egongo dira, zuzenean eta hierarkikoki, Industria eta Meategiak Administratzeko Zuzendaritza, Energia Zuzendaritza, eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

10.– Administrazio eta Plangintza sailburuordeak beteko ditu estrategia eta plangintza arloko eginkizunak, eta sail horretako kontratazio organoa izango da.

11.– Administrazio eta Plangintza sailburuordeari dagokio abenduaren 30eko 48/1998 Legeak —ur, energia, garraio eta telekomunikazio arloetan kontratuak egiteko prozedurei buruzkoak— ezartzen duen eremuko kontratazioei buruzko erreklamazioak ebaztea eta lege horretako 51. artikuluan jasotako gainerako neurriei buruz erabakitzea; delako kontratazio horiek Energiaren Euskal Erakundea / Ente Vasco de la Energía (EEE/EVE) zuzenbide pribatuko erakunde publikoarenak dira, bai eta horren menpeko baltzu publikoenak ere.

***9. artikulua.***– Industria eta Meategiak Administratzeko Zuzendaritza.

Dekretu honen 7. artikuluan orokorrean finkatutako egitekoez gain, honako hauek ere dagozkio Industria eta Meategiak Administratzeko Zuzendaritzari industria, industria segurtasun eta meategi arloetan:

a) Industriako produktu, tresneria eta instalazioen araudiak betetzen direnentz jakiteko kontrola eta segimendua egitea. Horrez gain, batez ere honako gai hauen araudia betetzen den jakitea:

– Gas-erregaiak eta produktu kimikoak biltegiratzea.

– Gasaren, berokuntzaren, klimatizazioaren eta ur bero sanitarioaren instalazioak eta hozkailu instalazioak.

– Igogailuak eta presio bidez dabiltzan aparatuak.

– Istripu larriei aurrea hartzea.

– Ibilgailuak.

– Industria segurtasunari loturiko araudiaren beste edozein gai.

7.– El área de Estrategia y Planificación engloba todas las actuaciones relacionadas con la elaboración y seguimiento de planes, estudios y elaboración de política y, en particular, las propuestas de planificación en relación a las actuaciones sobre la Sociedad de la Información y del Conocimiento.

8.– El/a Viceconsejero/a de Administración y Planificación representará al Departamento de Industria, Comercio y Turismo en los órganos y/o comisiones promovidas por la Administración del Estado en materia de Energía, Minas y Calidad y Seguridad Industrial.

9.– De la Viceconsejería de Administración y Planificación dependen directa y jerárquicamente la Dirección de Administración de Industria y Minas, la Dirección de Energía y la Dirección de Servicios Generales.

10.– El/a Viceconsejero/a de Administración y Planificación realizará las funciones correspondientes al área de Estrategía y Planificación y será el órgano de contratación del Departamento.

11.– El/a Viceconsejero/a de Administración y Planificación resolverá las reclamaciones y acordará el resto de medidas que establece el artículo 51 de la Ley 48/1998, de 30 de diciembre, sobre procedimientos de contratación en los sectores del agua, la energía, los transportes y las telecomunicaciones, en relación a las contrataciones que deban incluirse en el ámbito de aplicación de dicha Ley, tanto del Ente Público de Derecho Privado «Energiaren Euskal Erakundea / Ente Vasco de la Energía» (EEE / EVE) como de las sociedades públicas de él dependientes.

***Artículo 9.***– Dirección de Administración de Industria y Minas.

Corresponden a la Dirección de Administración de Industria y Minas, además de las que con carácter general se establecen en el artículo 7, las siguientes funciones que se realizarán en las áreas de Industria, de Seguridad Industrial y de Minas:

a) Efectuar el control y seguimiento del cumplimiento reglamentario de productos, equipos e instalaciones industriales y en particular, las relativas a las siguientes materias:

– Almacenamientos de combustibles gaseosos y de productos químicos.

– Instalaciones de gas, de calefacción, de climatización y de agua caliente sanitaria, e instalaciones frigoríficas.

– Aparatos Elevadores y Aparatos a Presión.

– Prevención de Accidentes Mayores.

– Vehículos.

– Cualquier otra materia sometida a reglamentación de seguridad industrial.

b) Industriaren, industria segurtasunaren eta meategien arloan aurretiazko administrazio baimena behar duten espediente guztiak kudeatu, izapidetu eta ebaztea.

c) Dekretu honetan edo bera garatzen duten xedapenetan jasotakoa ezarri ondoren Industria, Merkataritza eta Turismoko lurralde bulegoei, industriaren, industria segurtasunaren eta meategien arloan, ez dagozkien egiteko guztiak.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Establezimenduen Erregistroari, metrologiari, industria kalitate eta segurtasunari eta industria jabetzari loturiko jarduera guztiak.

e) Meategien eta gainerako erreserba geologikoen nahiz geotermikoen erregimena, ikerketa eta aprobetxamendua.

f) Meategietako jardueren eragina jasan duten naturguneak zaharberritzea. Hala ere, kontuan izan beharko dira beste sail batzuei gai horretan esleitutako eskumenak.

g) 2. eta 3. mailako instalazio erradioaktiboak, medikuntzako X izpiak, ingurumeneko erradiologia ikuskapena eta gai horri loturiko bestelako eginkizunak, bai hala araututa dagoelako, bai Segurtasun Nuklearrerako Batzordeak hala agindu diolako. Hala ere, Osasun Sailak gai horien inguruan dituen eskumenak errespetatu behar dira.

*10. artikulua.–* Energia Zuzendaritza.

Dekretu honen 7. artikuluan modu orokorrean finkatutako egitekoez gain, energia arloan, honako eginkizun hauek dagozkio Energia Zuzendaritzari:

a) Energia erregimena eta ekoizpena, eta energia iturrien prospekzioa, sustapena eta aprobetxamendua.

b) Energia berriak ikertzeko planak aztertu eta egitea.

c) Energia baliabideak iraunaraztea eta energia aurreztea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta Europar Batasuneko energia plangintzan parte hartzea eta horri buruzko informazioa biltzea.

e) Hidrokarburoen arloan indarrean dagoen oinarrizko legediko parte-hartze eginkizunak betetzea.

f) Energiaren arloan aurretiazko administrazio baimena behar duten espediente guztiak kudeatu, izapidetu eta ebaztea.

g) Dekretu honetan edo dekretua garatzen duten xedapenetan jasotakoa ezarri ondoren Industria, Merkataritza eta Turismoko lurralde bulegoei, energiaren arloan, ez dagozkien egiteko guztiak.

b) Gestión, tramitación y resolución de todos aquellos expedientes que en materia de industria, de seguridad industrial y de minas deban ser objeto de autorización administrativa previa.

c) Todas aquellas funciones en materia de industria, de seguridad industrial y de minas que, por aplicación de lo establecido en el presente Decreto o en sus disposiciones de desarrollo, no resulten atribuidas a las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo.

d) Todas aquellas actuaciones relacionadas con el Registro de Establecimientos Industriales, la metrología, la infraestructura para la calidad y seguridad industrial y la propiedad industrial.

e) Régimen minero, investigación y aprovechamiento de yacimientos minerales y demás reservas geológicas y geotérmicas.

f) Restauración de espacios naturales afectados por actividades mineras, sin perjuicio de las competencias asignadas en esta materia a otros Departamentos.

g) Autorización y control de instalaciones radiactivas de 2.ª y 3.ª categoría, RX medicas, vigilancia radiológica ambiental y cuantas otras funciones le vengan atribuidas en esta materia tanto por norma como por encomienda de gestión con el Consejo de Seguridad Nuclear, sin perjuicio de las competencias asignadas en esta materia al Departamento de Sanidad.

*Artículo 10.–* Dirección de Energía.

Corresponden a la Dirección de Energía, además de las que con carácter general se establecen en el artículo 7, las siguientes funciones que se realizarán en el área de Energía:

a) Régimen energético, producción, prospección, promoción y aprovechamiento de las fuentes de energía.

b) Estudio y elaboración de Planes de Investigación en materia de nuevas energías.

c) Conservación y ahorro energético.

d) Participación e información en la planificación energética de la Comunidad Autónoma, estatal y europea.

e) Efectuar las funciones de participación previstas en la legislación básica vigente en materia de hidrocarburos.

f) Gestión, tramitación y resolución de todos aquellos expedientes que en materia de energía deban ser objeto de autorización administrativa previa.

g) Todas aquellas funciones en materia de energía que, por aplicación de lo establecido en el presente Decreto o en sus disposiciones de desarrollo, no resulten atribuidas a las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo.

*11. artikulua.–* Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

1. Dekretu honen 7. artikuluan modu orokorrean finkatutako egitekoez gain, honako eginkizun hauek dagozkio Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzari:

a) Sailaren aurrekontuaren aurreproiektua koordinatu eta prestatzea, baita horren segimendua eta sailaren ekonomiaren kudeaketarena egitea ere.

b) Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeko 10. artikuluan zehaztutako eskumenak betez, sailari atxikitako langileak administratu eta kudeatzea, betiere kontuan izanda 4. artikuluan aurreikusitako salbuespena. Betiere, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko gai horretako organo eskudunen ahalmenak kontuan izango dira.

c) Berak ebaluatzea Sailak langile premiei buruz egindako aurreikuspenak, eta berak proposatzea saileko lanpostuen plantillak eta zerrendak ere.

d) Langileen prestakuntzarako eta hobekuntzarako planak eta programak sustatzea. Hala ere, araudiari jarraituz, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin lankidetzan arituko gara gai horretan.

e) Organo eskudunek langileei buruz lortutako akordioen eta hartutako erabakien berri zuzena ematea saileko zerbitzuei, jakinaren gainean egon daitezen; eta horiek guztiok betetzen direnentz begiratzea.

f) Saileko beste organoekin batera eta Euskal Autonomia Erkidegoan dagokien beste organoekin batera koordinatuta, saileko zerbitzuen eta sailean erabiltzen diren lan sistema eta metodoen barne antolaketa arrazionalizatzea eta informatizazioa lortzeko proposamenak prestatzea.

g) Lanpostuen banaketa fisikoarekin, ekipamenduarekin eta eraberritze lanekin zerikusia duten saileko unitate guztien jardunak zuzentzea; hala ere, Ogasun eta Herri Administrazio Sailari gai honetan izendatutako eskumenak errespetatu beharko dira. Saileko bulegoen barne erregimena zaindu eta babestuko du, bai eta sailari atxikitako ondarea eta bere ekipamendua administratu eta iraunarazi ere.

h) Saileko Erregistro Nagusia, Agiritegia, Liburutegia eta gainerako agiri zentroak antolatu eta zuzentzea; hala ere, Ogasun eta Herri Administrazio Sailean organo eskudunen ahalmenak errespetatu beharko dira.

i) Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari dagozkionez, eskumen hauek kudeatzea: indarrean dagoen legedian sail guztiei orokorrean esleitutako eskumenak,

*Artículo 11.–* Dirección de Servicios Generales.

1.– Corresponde a la Dirección de Servicios Generales, además de las que con carácter general se establecen en el artículo 7, las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Coordinar y elaborar el Anteproyecto de Presupuesto del Departamento y ejercer el seguimiento del mismo, así como de la gestión económica del Departamento.

b) Administrar y gestionar al personal adscrito al Departamento, ejerciendo las competencias que al respecto determina el artículo 10 de la Ley de la Función Pública Vasca con la salvedad prevista en el artículo 4; todo ello sin perjuicio de las atribuciones que correspondan a los órganos competentes del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

c) Evaluar las previsiones de necesidades de personal efectuadas por el Departamento, y realizar las propuestas para la elaboración de las plantillas y de relaciones de puestos de trabajo en el mismo.

d) Promover planes y programas de formación y perfeccionamiento del personal, sin perjuicio de la colaboración que, al respecto, haya de realizarse con el Instituto Vasco de Administración Pública.

e) Mantener adecuadamente informados a los servicios del Departamento de los acuerdos y resoluciones relativos al personal adoptados por los órganos competentes, vigilando el cumplimiento de los mismos.

f) Elaborar propuestas sobre la organización interna, racionalización e informatización de los servicios del Departamento y de los sistemas y métodos de trabajo en el mismo, en forma coordinada con los demás órganos del Departamento y con los órganos competentes de la Administración de la Comunidad Autónoma.

g) Dirigir las actuaciones de las distintas unidades del Departamento relacionadas con la distribución física y equipamiento de puestos de trabajo y obras de reforma, sin perjuicio de las competencias asignadas en esta materia al Departamento de Hacienda y Administración Pública. Atender y cuidar el régimen interior de las dependencias del Departamento y la administración y conservación del patrimonio adscrito al mismo y de su equipamiento.

h) Organizar y dirigir el Registro General, el Archivo, la Biblioteca y los demás centros de documentación del Departamento, sin perjuicio de las atribuciones que correspondan a los órganos competentes del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

i) Gestionar las competencias que, en relación a la legislación vigente, correspondan al Departamento de Industria, Comercio y Turismo por tener el carácter de

Euskadiko Ogasun Nagusiaren, antolaketaren eta informatikaren arloetakoak.

j) Saileko organoei lege aholkularitza ematea; hala ere, Jaurlaritzako Lehendakariordetzak arlo horretan dituen eskumenak errespetatu beharko dira.

k) Ekonomia gaietarako Ordezko Batzordeari eta Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztu behar zaizkien gaiak bidaltzeko izapideak egitea, baita Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo beste edozein aldizkari ofizialetan argitaratu behar diren xedapen eta administrazio egintzak bidaltzeko izapideak ere.

l) Auzi prozeduretan sartuta dauden sailaren interesei behar den segimendua egitea Jaurlaritzako Lehendakariordetzako organo eskudunen bidez.

m) Sailak Arartekoarekin eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekin dituen harremanak koordinatu eta bideratzea organo eskudunen bidez.

2.– Zerbitzu Orokorretako zuzendariari dagokio Administrazioa eraberritzeko organo eskudunek emandako jarraibideak eta ekimenak aurrera eraman eta betearazteko beharrezkoa den euskarria bermatzea; horregatik, berari dagokio Sailaren barruan lan hori egitea, betiere, Jaurlaritzaren programako aurreikuspenen baitan.

3.– Zerbitzu Orokorretako zuzendariari dagokio, halaber, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren barruan, Eusko Jaurlaritzak Europar Batasuneko araudia eta politikak landu eta ezartzeko koordinazio neurriak betearaztea, betiere, indarrean dauden akordio eta arauekin bat.

4.– Lurralde bulegoak Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzaren menpe egongo dira zuzenean eta hierarkikoki, eta Zuzendaritza horri dagokio haiek zuzentzea, koordinatzea eta antolatzea.

2. ATALA
INDUSTRIA BERRITZEKO ETA GARATZEKO SAILBURUORDETZA.

*12. artikulua.–* Industria Berritzeko eta Garatzeko Sailburuordetza.

1.– 6. artikuluan modu orokorrean finkatutako eskumenez gain, honako jardun arlo hauek ere zuzentzea eta koordinatzea dagokio Industria Berritzeko eta Garatzeko Sailburuordetzari:

a) Teknologia eta berrikuntza.

b) Informazioaren eta jakintzaren gizartea.

c) Kudeaketaren kalitatea eta berrikuntza.

d) Nazioartekotzea.

comunes, al venir atribuidas con carácter general a todos los Departamentos, en relación con las materias propias de la Hacienda General del País Vasco, Organización e Informática.

j) Prestar asesoramiento jurídico a los órganos del Departamento, sin perjuicio de las competencias que en este campo ostenta la Vicepresidencia de Gobierno.

k) Tramitar la remisión de los asuntos que hayan de ser sometidos a la Comisión Delegada para Asuntos Económicos y al Consejo de Gobierno, así como la de aquellas disposiciones y actos administrativos que hayan de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco o en cualquier otro Diario Oficial.

l) Efectuar el seguimiento de los intereses del Departamento implicados en procedimientos judiciales, a través del órgano competente de la Vicepresidencia de Gobierno.

m) Coordinar y canalizar, a través de los órganos competentes, las relaciones del Departamento con el Ararteko y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

